

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Goi Mailako Teknikari lau lan-poltsa osatzeko oinarriak**

Ima Garrastatxu Urbaneja andreak, Administrazio Orokorreko Goi-mailako Teknika-rien lau (4) lan-poltsen arautuko dituzten oinarriak onartzen du, Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen eta udaleko enpresa publikoen aldi baterako beharrianak hornitzeko.

GOI MAILAKO TEKNIKARI LAU LAN-POL TSA OSATZEKO OINARRIAK**Lehen a. — Deialdiaren xedea**

Hautaketa-prozesua deitzen da, oposaketa sistema askearen bidez, goi mailako teknikari lau lan-poltsa osatzeko: A taldea, A-1 titulazio azpi-taldea, eta 4 HE derrigorrezkoa. (3 HE aurkezten duten hautagaien kandidaturak onartu egingo dira, baina bakarrik hartuko dira kontuan 4 HE egiaztatu duten hautagaiek inork ez badu hautaketa prozesua gainditu edo lanean jarduteko dagokion deia egiten zaion unean lanean aritzeko modurik ez duenean):

- A lan poltsa: idazkaritza orokorreko lan poltsa.
- B lan poltsa: kontu-hartzailetza saileko lan poltsa.
- C lan poltsa: diruzaintza saileko lan poltsa.
- D lan poltsa: giza baliabide saileko lan poltsa.

3 maila eratuko dira lan poltsa bakoitzean, eta deialdiak egiterako orduan honako lehentasun-ordena jarraituko da:

- 1 maila: 3 ariketak gainditzen dituzten hautagaiek osatuko dute.
- 2 maila: lehen eta bigarren ariketak gainditzen dituzten hautagaiek osatuko dute.
- 3 maila: lehen ariketa gainditu eta bigarrenean 15 puntu baino gehiago lortzen dituzten hautagaiek osatuko dute.

Durangoko Udalaren, haren erakunde autonomoen eta enpresa publikoen lan-poltsak kudeatzeko irizpideen 4. atalean araututakoaren gainetik, oinarri hauetan lan-poltsen 3 maila eratzeari buruz ezarritakoa gailenduko da.

A taldeko, A-1 azpitaldeko lan poltsak A taldeko, A-2 azpitaldeko lanpostuak betetze-ko erabili ahalko dira.

Bigarren a. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak

1. Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete behar dira:
 - a) Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko herrialderen batena, edo Europar Batasunak egindako nazioarteko hitzarmenak direla bide, eta Espainiak izenpetu baldin baditu, langileen zirkulazio askea ezarri daitekeen estaturen batekoa izatea.

Parte hartu ahal izango dute, orobat, Europar Batasuneko nazionalitatea dutenen ezkontideek, betiere, zuzenbidez bananduta ez badago. Halaber, bere ondorengoak eta ezkontidearen ondorengoak ere hartu ahal dute parte, betiere, baldintza hauekin: ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, nagusiagoak izanik, ezkontideen kontura bizi badira.
 - b) 16 urte eginda edukitzea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea.
 - c) Honako titulazioa izatea: Lizentziatura edo Gradu mailako unibertsitateko titulua edo berau lortzeko eskubideak ordaindu izana eskubideak aurkezteko epearen barruan.



Atzerrian lortutako tituluak dituzten hautagaiek titulu baliokidea aurkeztu behar dute, edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa dutela egiaztatu behar dute.

- d) Eginkizunak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Disziplina-espediente bidez bereizita ez egotea edozelako herri administrazioetako, autonomia erkidegoetako edo konstituzio organoetako zerbitzutik; edota, kargu publikoak betetzeko ezgaitasunik ez izatea epailearen ebazpenen baten ondorioz, edota funtzionario kidegoa betetzeko edo lan-hitzarmeneko postuan zegoenean betetzen zituen antzeko funtzioak betetzetik apartatua edo ezgaitua izatea. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, antzeko egoera baten ezgaitua ez izatea edota disziplina zigorrik edo antzekorik ez izatea bere Estatuan enplegu publikoan aritzeko dagokionez.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera.
- g) Eskaerak aurkezteko epearen barruan indarreko udal-ordenantzan jasotzen den azterketa egiteko tasa ordaintzea, 20 €, betiere, eskariak aurkezteko epearen barruan. Langabezian egonez gero, eta ordenantza fiskaletan tasa honen inguruan jasotzen dena aplikatzeko, salbuespena egiaztatu beharko da «lan bizi-tzako egiaztagiria» aurkeztuta. Hautaketa prozesu bakoitzeko tasa bat ordaindu behar da (A poltsa, B poltsa, C poltsa eta D poltsa). Ordainketa egoitza elektronikoa edo banku transferentzia bidez egin daiteke. Banku transferentzia bidez egiten bada, honako hau adierazi behar da diru-sarreraren kontzeptu gisa:
 - A poltsan parte hartzeko: A + NAN zenbakia (adibidez: A30677643).
 - B poltsan parte hartzeko: B + NAN zenbakia (adibidez: B30677643).
 - C poltsan parte hartzeko: C + NAN zenbakia (adibidez: C30677643).
 - D poltsan parte hartzeko: D + NAN zenbakia (adibidez: D30677643).
 - Ordainketa kontu zenbaki honetan egingo da: ES32 2095 0036 60 91 0733 6241.

2. Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak, eta hautaketa-prozesu osoan zehar bete beharko dituzte.

Hirugarrena. — Eskabideak eta onarpena

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskari-orrian, hautagaiek, eskatzen zaizkien oinarritzko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskabideak behar bezala bete eta alkatetzari zuzenduta aurkeztuko dira HAZen (Barrenkalea 17, Durango), edo Durangoko Udaleko egoitza elektronikoa honako lotura honetan: <https://egoitza-sede.durango.eus/> betiere, behar den moduan beteta 10 egun baliodunetan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Eskari-orriak Durangoko Udaleko web orrian agertzen den eredu ofizialean beharko dira aurkeztu: <http://www.durango-udala.net> eta HAZen (Barrenkalea 17, Durango) ere eskuratu ahal dira eta, baita ere, Durangoko Udaleko egoitza elektronikoa. Parte hartu nahi den hautaketa prozesu bakoitzeko eskari bat aurkeztu behar da (A poltsa, B poltsa, C poltsa edo D poltsa).

Herri-administrazioen administrazio prozedura erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 4 artikulua zehazten duen edozein lekutan ere aurkeztu daitezke eskabideak.

Postetxez aurkeztutako eskabideak kartazal irekian aurkeztuko dira, Postetxeko funtzionarioek data eta zigilua jarri diezaieten egiaztatu baino lehen.

Langile-gaiek eskari-orrian aurkezturiko informazio guztia fitxategi batean jasoko da, eta fitxategi hori hautaketa prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Halaber, hala eskatzen duten beste administrazio batzuei ere eman dakioke fitxategia, baina horretarako, eskari-orriaren dagokion laukitxoan baimena eman behar du eskatzaileak (eranskinean jasotzen da). Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua bat etorriko da lege-testu hauetan ezartzen denarekin: Datu Pertsonalak Babesteko, abenduaren 5eko, 3/2018



Legea eta, otsailaren 25eko, 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

Hautaketa prozesu honetako hautagaiek, espresuki, eta kontrakorik adierazten ez duten bitartean, baimena ematen dute euren datu pertsonalak oinarri hauetan jasotzen diren eran tratatuak izan daitezen.

Eskabideetan honako agertuko da:

- a) Datu pertsonal osoak.
- b) Oposizio faseko probak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz edo gaztelaniaz.
- c) Ezintasunen bat dutenek eskabidean eman beharko dute horren berri eta, hala behar izanez gero, hautaprobak egiteko zein egokitzapen tekniko behar dituzten adieraziko dute.
- d) Eskaintzak jaso nahi badira, estaldura-beharrizanak zehaztu behar dira, esate baterako: iraupen luzeko beharrizanetarako (hiru -3- hilabete baino gehiagoko aurreikuspena), iraupen laburreko beharrizanetarako edo bietarako, betiere, Durangoko udalaren, bere erakunde autonomoen eta udal zerbitzu publikoen lan-poltsak kudeatzeko irizpideen 1. atalean dagozkien zerrendetarako arautzen denarekin bat etorritik.

Deialdian parte hartzeko eskari orrian ez da atxikiko deialdiko betebeharren gaineko inongo dokumentazio egiaztagarrik (dokumentazio egiaztagirria aukrezteko begiratu zortzigarren oinarria).

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatetzak, ebazpena emango du deialdi bakoitzean onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpena Udaletxeko Iragarki Taulan eta Udaleko honako web orrian argitaratuko da: www.durango-udala.net

Zerrenda horretan, eta bazter utzitako hautagai bakoitzari dagokiones, baztertzeko arrazioa zehaztu beharko da eta 10 egun balioduneko epea emango da bazter utzi izanaren kontrako erreklamazioak egiteko eta, hala denean, egindako hutsak zuzentzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartu duen agintaritzak erreklamazio horiek ebatziko ditu. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Behin betiko zerrendak, behin-behinekoa argitaratutako era berean argitaratuko dira.

Laugarrena.— Epaimahaia

Epaimahai espezifikoak eratuko da lan poltsa bakoitzerako.

Epaimahaian honakoak egongo dira: presidentea, idazkaria eta hiru bokal.

Epaimahaiak, hala baderitzo, aholkulari espezialistak baliatu ahalko ditu hautaketa prozesuko frogak batzuetarako edo guztietarako. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.4 artikulua. Aholkulari espezialista hauek aholkuak eta laguntza teknikoa eskainiko dute beren espezialitate teknikoetan, eta hitzarekin baino botorik gabe jardungo dute.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote Udalbatzako presidenteari, baldin eta sektore publikoaren erregimen juridikoa arautzen duen, urriaren 1eko, 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako gorabeheraren bat gertatzen bada. Honelakoren bat gertatuz gero, hautagaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Epaimahaia eratzeko, Idazkari eta ordezkotzarik gabeko kideztetako titularrekin batera, ordezkotza ere izendatu beharra dago. Era berean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.2 artikulua arabera, batzarrak egiteko orduan organoa behar bezala eratua izan dadin, presentzialki edota distantziara, buruak



eta idazkariak, edo haien ordezkoeak, eta organoko kide-kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko dute.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuen botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako legezko arrazoiren bat gertatzen bada, presidentearen ordezkio bere ordezkioak jardungo du eta, ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkape-na, etortzerik izan ez duelako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala gertatuko ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdian aurreikusten dena behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu.

Epaimahai bakoitzak izango dituen titular eta ordezkioen izen-deituren zerrenda, behin behineko baztertu eta onartuen zerrendekin batera argitaratuko da, alkate-udalburuak alde aurretik izendapena egin eta gero.

Komunikazio eta bestelako gora beheretarako, haxe izango da Epaimahai kalifikatzaileen helbidea: Durangoko Udala, giza baliabideen saila, Barrenkalea 17, 1. 48200 Durango.

Bosgarrena. — Hautaketa-prozesua hasteko eguna eta hurrengoak

Oposizioak deialdi bakarrean deituko dira. Azterketara deitua izan eta edozein ariketara aurkeztu ez diren oposizioak ariketa horretan partehartzeko eskubidea galduko dute. Arau bera aplikatuko zaie edozelako ariketa derrigorrezko egitera ariketa hasi ostean agertuko direnei. da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Frogetara hautaketa prozesuan onarturiko pertsonak aurkeztuko dira, betiere, aurreko frogak gainditu badituzte. Halaber, kautelaz, bazter geratu direnak ere aurkezteke baldin eta, frogetako emaitzen kontra, alegazioen bat aurkeztu badute epaimahai kalifikatzaileen aurrean edota berraztertze errekurtsoa alkatetzaren aurrean. Alegazioa edo berraztertze errekurtsoa aurkeztu direnetan, hautagaiek epaimahairi jakinarazi behar diote hautaketa prozesuan jarraitzen dutela baliabideak eta materialak eskuragarri izateko.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaike hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezkeen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagairen bategi deialdiko baldintzak betetzen ez dituela, hautagaia baztertuta utziko du, interesatuari entzun eta gero, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintaritzari.

Seigarrena. — Hautaketa-prozesua

Oposaketa fasea: 100 puntu

Fase honetan, gehienez ere, ehun (100) puntu lortu ahal dira. Oposaketan honako frogak hauek izango dira:

Lehen ariketa

150 minututan, test erako 100 galderei erantzun behar zaie, gehi erreserbako beste 15i. Galdera bakoitzak lau erantzun alternatibo izango ditu, eta hauetako bakarra izango da zuzena. Erantzun ez zuzen bakoitza heren bat kenduta zigortuko da. Galderak ikasgai zerrenda orokorreko edozein gairi buruzkoak izan daitezke. Ariketa derrigorrezkoa



eta baztertzailea izango da hautagai guztientzat. Ariketa honetan, gehienez ere, 25 puntu lortu ahal dira eta berau gainditzeko, gutxienez, 12,5 puntu atera behar dira.

Epaimahaiak, hautagaiak nortzuk diren ezagutu baino lehen eta aurkeztutako hautagaien ezagutza-maila ikusi eta gero, proba hau gainditzeko gutxieneko puntuazioa aldatu ahal izango du.

Baztertuta geratuko dira froga hau gainditzeko epaimahaiak ezarri duen gutxieneko puntuazioa lortzen ez dutenak.

Bigarren ariketa

4 orduko epean, gehienez ere, ikasgai zerrendarekin zerikusia duten bi kasu praktiko edo gehiago landu beharko dira.

Ariketa derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da hautagai guztientzat. Gehienez, 50 puntu emango dira ariketan, eta berau gainditzeko, gutxienez, 25 puntu atera behar dira.

Hirugarren ariketa

Froga psikoteknikoak egingo dira hautagaia lanpostuaren perfilera egokitzen den baloratzeko.

Ariketa derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da hautagai guztientzat. Ariketan, gehienez ere, 25 puntu eskuratu ahal dira.

Epaimahaiak, hautagaiak nortzuk diren ezagutu baino lehen eta aurkeztutako hautagaien ezagutza-maila ikusi eta gero, erabakiko du zein izango den azterketa gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa.

Baztertuta geratuko dira froga hau gainditzeko epaimahaiak ezarri duen gutxieneko puntuazioa lortzen ez dutenak.

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak zein ordenetan egingo diren erabaki dezake. Halaber, egun berean ariketa bat edo gehiago egitea ere erabaki dezake.

Zazpigarrena. — Euskara

A, B, C eta D poltsetara aurkeztu diren hautagaiek 4 HE edo baliokidea egiaztatuta izan behar dute dagokion epaimahai kalifikatzaileak deialdiko bete beharrei buruzko dokumentazio egiaztagarria aurkezteko epea irekitzen duenean, beti ere, azaroaren 9ko, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako erreferentzia Marko Bateratuko mailekin partekatze den, 297/2010 dekretuarekin bat etorritik.

3 HE aurkeztu duten hautagaien kandidaturak onartu egingo dira, baina bakarrik hartuko dira kontuan 4 HE egiaztatu duten hautagaiek inork ez badu hautaketa prozesua gainditu edo lanean jarduteko dagokion deia egiten zaion unean lanean aritzeko modurik ez duenean.

Zortzigarrena. — Dokumentazio egiaztagarria aurkeztea

Deialdiko betebeharren dokumentazio egiaztagarria epaimahai kalifikatzaileari aurkeztuko zaio epaimahaiak berak ezarritako eran eta epean.

Epe barruan, eta pisuzko arrazoirik egon ezean, eskaturiko dokumentazioa aurkeztu ez bada edo eskaturiko betebeharrak baldintzak betetzen ez badira, hautagaia ez da lan poltsetan sartuko, eta baliorik gabe geratuko dira bere jarduketa guztiak, eskari-orrria faltsutu izanak ekar ditzakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

Gaindituen zerrenda

Lan poltsa bakoitzeko behin betiko sailkapen-ordena egiteko kontuan hartuko dira oposaketa aldian lortutako puntuazioak.

Berdinketarik gertatuz gero, hori ebatzi eta sailkapen-ordena honela egingo da:

- Lehenik, oposaketa faseko bigarren ariketan puntuazio altuena lortu duen hautagaiaren alde.



- Bigarrenik, oposaketa faseko hirugarren ariketan puntu gehien lortu duen hautagaiaren alde.
- Hirugarrenik, oposaketa faseko lehen ariketan puntuazio altuena lortu duen hautagaiaren alde.

Azterketa bakoitzari buruzko puntuazioak jendaurrean erakutsiko dira Udaletxeko iragarki taulan eta webean dagokion iragarkia argitaratuz.

Oposizio-aldiko azken ariketa egin ostean, epaimahaiak, dagozkion kalifikazioak aintzat hartuta, gainditu dutenen zerrendak osatuko ditu, puntuazio-ordena aintzat hartuta. Zerrenda horiek osatu ondoren, Udaletxeko iragarki taulan eta webean iragarriko ditu.

Hautaketa-prozesuko onartuen zerrendak baliagarriak izango dira aldi baterako funtzionario izendatzeko, betiere, araudiak aurreikusten dituen balizkoak ematen badira. Onartutako guztiak Durangoko Udaleko aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko lan-poltsetan sartzeko erabiliko dira.

Hautaketa prozesu honetatik ateratzen diren lan-poltsetako kudeaketa, Durangoko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko dagoen araudiak erregulatuko du. Honela, lanpostuari esleitzen zaizkion eginkizun nagusiak eta bestelako egitekoak betetzen ez badira, hautagaia «behin betiko baja» egoeran deklaratu daiteke dagokion poltsan, betiere, Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen eta udaleko enpresa publikoetako Lan-poltsak Kudeatzeko Irizpideen 5.3 atalak ezartzen duenarekin bat etorritik.

Bederatzigarrena. — Aurreko lan-poltsen indarraldia

Behin betiko emaitzak edo bertatik ateratzen diren lan-poltsak argitaratu eta gero, indarraldia galduko dute aurreko lan poltsa hauek: Durangoko Udalaren A mailako teknikaria, A-1 taldea, arlo juridiko, kontu-hartzailetzakoa, diruzaintzakoa eta giza baliabideetako.

Hamargarrena. — Gorabeherak

Oinarri hauetan aurreikusten ez denari dagokienez, honako lege-testuak aplikatuko zaizkio: urriaren 30eko, 5/2015 legegintzako errege dekretua, enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duena; uztailaren 6ko, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea; abuztuaren 2ko, 30/1984 Legea, funtzio publikoa berriro neurri buruzkoa; apirilaren 2ko, 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, eta aplikagarri izan daitezkeen gainontzekoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri daiteke Durangoko Udaleko Alkatearen aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi (2) hilabeteko epean. Nolanahi ere, ezingo da bi errekurtsoak batera jarri.

Durangon, 2021eko urtarrilaren 21ean. — Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja

**IKASGAI ZERREDA**

1. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. I. titulua (10.-52. artikulua).
2. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia Erkidegoak: VIII. titulua (137tik 158ra).
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua: I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10etik 23ra). II. Titulua Euskal Herriko pode-res 24tik 34ra).
4. Kode Zibila: Espainiako ordenamendu juridikoaren iturriak, izaera juridikoen aplikazioa, arau juridikoen eraginkortasuna eta barne-zuzenbide pribatuaren arauak (1-12).
5. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Legearen, udalerriaren eta EAEko gainerako toki-entitateen xedea eta hastapenak, udal anitzeko eskumenak, I., II. eta III. tituluak (1-24).
6. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: udalerrri batego auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak (43-45). Herritarren parte-hartzea (67tik 77ra).
7. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak. I. titulua Xedapen orokorrak. II. Titulua Udalerria. I. kapitulua Lurraldea eta biztanleria. II. Kapitulua Antolamendua. III. Kapitulua Eskumenak.
8. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak. V. titulua Toki-erakundeen xedapen komunak.
9. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak. Ondasunak, jarduerak eta zerbitzuak (79tik 86ra).
10. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak 89tik 104ra).
11. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Legearen xedea eta aplikazio-eremu subjektiboa. Prozeduran interesa duten pertsonak (1-8). Administrazio publikoen jardura (13tik 28ra).
12. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Denbora-dimentsioa. Epe-mugak eta epeak (29tik 33ra). Administrazio-egintzak eta egintzen eraginkortasuna (34-52).
13. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-errekurtsoak: xedea eta motak (112tik 126ra).
14. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Legearen xedea eta aplikazio-eremua: xedea eta fi-nalitatea, aplikazio-eremu subjektiboa (1etik 3ra); Negozioak eta kontratu baztertuak (4tik 11ra).
15. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa Sektore publikoko kontratuak: kontratuaren kalifikazioa (12tik 24ra).
16. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratuak: itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia, kontratuaren perfektzioa eta forma (34-37). Kontratuaren alderdiak: kontratazio-organoa (61etik 64ra), enpresaburuaren gaitasuna eta adostasuna (65-71).
17. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Enplegu publikorako sarbidea: printzipio gidariak, eskakizun orokorrak (55., 56. eta 59. artikulua) eta aukeraketa-sistemak (61. artikulua).
18. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: langile funtzionarioaren izaera eskuratzea eta galtzea (60-68 artikulua); funtzionarioen administrazio-egoerak, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera. V. kapitulua (59tik 68ra) eta euskararen erabileraren hizkuntza-normalizazioa, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua berresten duena) 1-18).



19. Enplegu publikoa: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: langile-motak eta enplegatu publikoen eskubideak (8tik 20ra). Enplegatu publikoen betebeharrak eta jokabide-kodea (52 eta 54).

20. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea: zioen azalpena, atariko titulua eta I. tituluko I. kapitulua; eta Durangoko genero-berdintasunerako IV. Plana (2018-2021): xedea, orientazio-printzipioak, indarrak, erronkak eta erronkak.

21. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, prestakuntza publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Hitzaurrea, Aplikazio-eremu subjektiboa (1etik 4ra); informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12tik 22ra). 2/2016 Legea, Toki Erakundeei buruzkoa. VI. titulua-I. kapitulua (47-61).

22. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa: I. kapitulua-Xedapen orokorrak, II. kapitulua-Printzipioak, III. kapitulua-Interesdunen eskubideak.

23. Toki-erakundeen aurrekontuak (i). 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa. Atariko titulua. I. titulua Aurrekontu orokorrak, I. kapitulua Definizioa, indarraldia eta aurrekontu-printzipioak. II. kapitulua Aurrekontu orokorren edukia.

24. Toki-erakundeen aurrekontuak (II). 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa. I. titulua. III. kapitulua. Aurre-kasu orokorren egitura. IV. kapitulua Ge-neral aurrekontuak egitea eta onartzea.

25. Toki-erakundeen aurrekontuak (III). 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa. I. titulua V. kapitulua Gastu eta sarreraren egoera-orriak aldatzea (28. artikulutik 34.era). VI. kapitulua Aurrekasuen betearazpena 37-45).

26. Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua: I. titulua. Aplikazio-eremua. II. titulua Toki-ogasunen errekursoak.

27. Sustapen-jarduera. Diru-laguntza. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Xedapen orokorrak: Legearen aplikazio-eremuari buruzkoak (2., 3., 4. eta 5. artikulua). Diru-laguntza publikoetarako xedapen komunak [(8., 9., 2., 3., eta 4., 11., 12., 13., 14., 15., 16. paragrafoak, 1., 3 a), b) eta c) idatz-zatiak, 4., 5. eta 6. artikulua, 17. paragrafoak – A), b), d), e) eta g) idatz-zatiak, 18., 19., 20., 1., 2., 3. eta 4. paragrafoak)].

28. Diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak (22, 29, 30, 1, 2 eta 3. paragrafoak; 31, 1, 2, 3, 7, 8 eta 9 paragrafoak; 34 eta 35. artikulua). Diru-laguntzak itzultzea (36, 37, 40, 1. paragrafoa).

29. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: xedapen orokorrak (1-4 artikulua); Administrazio publikoetako organoak (5-18 artikulua). Abstentzioa eta errekusazioa (23. eta 24. artikulua).

30. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: hitzarmenena (47. artikulutik 53. artikulura).

TEMARIOS ESPECÍFICOS

BOLSA A

1. Toki Administrazioa (i). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Toki-erakundeen erregelamenduak egiteko ahala [(3.1 eta 4.1 a artikulua)]. Tokiko ordenantzak eta bandoak [(124.4 g) artikulua eta 21.1 e) artikulua]. Tokiko ordenantzak egiteko prozedura: tokiko araudia (49. eta 70.2 artikulua) eta administrazioaren araudia (Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, 129-133 bitartean. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 78. artikulua. Osoko Bilkuraren araubide organikoa. IX. titulua, beste ordenantza eta erregelamendu batzuk egiteko eta onartzeko prozesua.



2. Toki Administrazioa (II). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. Toki-erakundeek gai bukatuetan egindako arau-hausteen eta zehapenen tipifikazioa (139-141 artikulua).

3. Toki Administrazioa (III). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. Toki-korporazioetako kideen estatutua (73., 74., 75., 76., 77. eta 78. artikulua). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Tokiko ordezkarien estatutuari buruzko xedapenak. 31.etik 34.era bitarteko artikulua.

4. Toki Administrazioa (IV). 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. Xedapen orokorrak (1. artikulutik 10. artikulura). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena. Udalerria eta gainerako euskal toki-erakundeak. 8.etik 13.era bitarteko artikulua. 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa. Udalerrri-kopurua. Lurraldea eta biztanleria (2.-11. artikulua eta 17. artikulua). Antolamendua (18. artikulutik 24. artikulura).

5. Toki Administrazioa (V). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena. Udal-antolaketa eta funtzionamendua. 25.etik 30.era bitarteko artikulua.

6. Toki-erakundeen ondarea (i). 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Bie-nes Erregelamendua onartzen duena. Ondasunen kontzeptua eta sailkapena (1etik 8ra). Ondasunen erabilera eta aprobetxamendua. Jabari publikoko ondasunen erabilera (74, 75, 76 eta 77). Emakida dema-niala (78tik 91ra). Toki-erakundeek beren ondasunei dagokienez dituzten prerrogatibak (44-73).

7. Toki-erakundeen ondarea (II). 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa. 1., 2., 3., 4. eta 5. artikulua, 1., 2. eta 4. paragrafoak.

